

...eta Kitto!

2019-I-18

1084 zkia.

Munduko Bankuan pobreziari aurre eginez

MERKEALDIA

Zatoz eta aprobeitza itzazu
prezio bereziak
VARILUX LENTEETAN

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com   

+ osasun gida

Dentistak



arat
Hertz Klinika

"Hertz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com
Toribio Etxebarria 4 - 1. EIBAR

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handien itundutako zentroa



bista eder
clínica dental · hertz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa



NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

Errehabilitazioa



CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekupeketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izeateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

KIRURGIA
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zkia.

- INDIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOA
- POSTURA ZUZENKETA
- TRATAMENDUAK

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendiá@hotmail.com

Ginekologia



GINECOLOGÍA
EIBAR

Dra. Laura Martínez
Dr. Alejandro Recas

Tel: 659 56 13 65
San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

Mankomunidiak puntu garbixak ipiñi dittu kalia



Kontenedore berezixak zer bota leikian idatzita dake atetxo bakotxian, marrazki eta guzti.

Debabarreneko Mankomunidiak edukiontzi berezi batzuk ipiñi dittu kalia, ohiko edukiontzietan laga ezin leikiazan eta gaur egun garbigune batera eruan bihar diran materixal birziklagarrixak biltzeko. Asmua jendiari hondakiñak lagatzeko erreztasunak emotia dala azaldu dabe. Eskualde osuan holako 12 puntu garbi ipiñi dittue, horretako hiru Eibarren: Egogain kalia, Tiburtzio Anitua kaleko 4an eta Urkizu pasealekuko 7-9xan. Edukiontzi berezi honetan zer bota leikian bertan

adierazita dago, idatziz eta irudixekin lagunduta. 8 kutxa txikixetan telefono mugikorrak, CD eta DVDiak, bonbixak, aerosolak, baterixa txikixak, pilak, telefono-kargagailuak eta erradiografixak bilduko dittue eta beste sei on-tzi haundixetan, barriz, kable elektrikuak, txatarra bolumen txikixa, etxetresna elektriko txikixak (plantxak, txigorgailuak etab.), ordenagaillu eramangarrixak, bideo-kontsolak, bideo-jokuak, 10 litrotik beherako pintura-potoak eta inprimagaillu-kartutxuak.

Urtarrillaren 31ra arte bilduko dittue Saharara bidaltzeko elikagaixak

Aljerian, Tindufeko kanpamenduetan bizi diran errefuxiatuerei laguntzeko asmuarekin Sahararen aldeko XV. Euskal Karabana: Piztu Itxaropena martxan jarri dabe aurtan be Eibar-Sahara Elkartekuak. Aurreko urtiotan egindakuaren bidetik, oinguan be elikagaixak eta premiñazko beste produktu batzuk bilduko dittue, urtarrillaren 31ra arte, ondoren saharar errefuxiatuen artian banatzeko. Eskatzen dittuen produktuak honek dira: arroza, pasta, azukria, lekaleak, atuna eta sardiñak olixotan eta konpresak.

Eibarren, ikastetxiek batera, honek egin

dabe bat kanpainaiekin: Villalba supermerkatuak, Isasi okindegixak, Eroskik (Urkizu, Urki eta Ipuruako dendak), BM-k eta El Corte Inglesak. Lagundu nahi dabenak aittatutako tokixetan laga leikez eskatzen dittuen produktuak.

Horrekin batera, Saharako kanpamenduetako umiak udan hamengo famelixetan hartzeko Oporrak Bakean proiektuarendako dirua biltzeko, Oporrak Bakean poltsak ipiñi dittue salgai, 7 eurotan. Erosteke interesa dakanak, Eibar-Sahara alkarteko ordekarixekin kontaktuan ipiñi leike.



Banatu dittue Lagun Taldekuen gabonetako otarrak

Lagun Taldekuak bi otar eder zozketatu zittuen Gabonetan eta zenbaki irabazliak 1017 eta 5314 izan ziran. Argazkixan ikusi leikian moduan, irabazliak poz-pozik juan ziran etxera, irabazittako otar ederrak hartuta. Zorionak!

Sanblasak egitten ikasteko ikastarua

Otsailla gerturaten doiala eta, San Blas opillak egitten ikasi nahi dabenendako ikastarua antolatu dau Arrate Kultur Elkartek. Urtarrillaren 26xan, 11:00etatik 13:00etara izango da ikastarua, Portaleko sukaldian eta Edurne Zenarruzabeitiak emongo dau. Informaziñua eskatzeko eta izena emoteko Arrate Kultur Elkartera jo leike, 638 284 912 telefonora deittuta edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzita.





Malen Illarramendi

Zoragarri ibilli ziran zapatuan Auzokoak alkartiaren eskutik egindako bazkarixan

Bekuak, Denon Sahatsa, Dorrepe, Edozer, Erdibana, Jaiki eta Urkusu-Gain, behe aldeko alkarte gastronomi-kuak osatzen daberen Auzokoak alkartiak aurten be bazkarixa antolatu dau Gureak lantegi babestuetako bihargiñendako eta Garaguneko erabiltzailliendako. 1981. urtiar geroztik antolatzen daberen bazkarixan 100dik gora lagun gonbidatzen dittue urtero eta aurtengua 39.a izan da. Auzokoak alkartekuak, bazkari

edarra emotiaz gain, enpresa, alkarte eta erakunde ezberdiñen laguntasunari esker oparixak be emoten detsez juandako guztieri. Holako plan biribilla izanda, normala dan moduan, zapatuan bazkarira juandako guztiak primeran pasatu eben eguna oinguan be. Bazkarira juandakueri egindako argazkixekin albuma sortu eta gure web orrixan ikusgai ipiñi dogu. Ikusteko sartu etakitto.eus/mediateka/argazki-bildumak helbidian.

autuan

AMAÑAKO JAIXETAKO ZOKKETA

Amañako Jai Batzordiak egindako azken zozketan, urtarrillaren 7xan eta 8xan ONCeren terminaziñuekin bat datozen 2629 eta 8560 zenbakixen jabiak irabazi dabe sarixa.



ERLIJIÑO TOPAKETIA

Arraten bizi diran mojak bizikidetza-jardunaldixa antolatu dabe bixarko, animatzen diran famelixa kristauendako. Goizeko 10:30xetan Arraten ongietorrixa emoten hasiko dabe eguna; 11:00etan hitzaldixa egingo da; 12:30xetan errosarixua; 13:00etan mezia; 14:30xetan bazkarixa; 16:30xetan zineforuma; 19:00etan bezperak eta adoraziñua; eta agurra 20:30xetan izango da.

fM Funeraria·Ehortzetxe
Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com


Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

GOGOAN BETI

Aukeran gazte joan zara, **XABI**.
Bizitza da, baina,
hala ehun urte iraun dezake edo
blausta eten berehala,
lana eginez lortu zenuen
ostalaritzan itzala,
euskaltzalea, lagun bikaina,
bihotz on, eskuzabala,
AMA NATURAK bere altzoan
amultsu gorde zaitzala. (TRUNBOI)

ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen
lagundu diguzuen guztioi. ETXEKOAK

TUTULUMENDI



**IDURRE
IRIONDO**

Jubilauak manifestaziñua deitu dabe astelehen eguadirako

lazko urte osuan egindakuari jarraituta, asteroko alkarretaratziekin segitzeko asmua azaldu dabe herriko pentsiodun eta jubilauak eta astelehen honetan be Untzagan konzentraziñua egin eben. Gaiñera, mobilizaziñuekin hasi zirala urtebete pasau dala gogoratzeko, Untzaga pentsionisten plataformak, Biztu elkarteak, Aguijupens Debarrenak eta Duintasuna elkarteak deittuta manifestaziñua egingo dabe datorren astelehenian. Untzagatik abiatuko dira, 12:00xetan, eta Calbeton, Bidebarrieta, Julian Etxebarria eta Toribio Etxebarria ziherkatuko dittue, atzera be udaletxe parian amaitzeko.



Mobilizaziñuak oin dala urtebete hasi zirala gogoratzeko manifestaziñua deitu dabe.

Udalak zazpi etxe lagako detsaz Alokabideri gizarte-alkairuetarako



Eusko Jaurlaritzak eta Eibarko Udalak hitzarmena siñatu eben atzo goizian Alokabidek, Udal Bizigune programaren bittartez, herriko zazpi etxebizitza gizarte-alkairurako erabiltzeko. Amañako hiru etxe, Romualdo Galdoseko beste hiru eta

Pagaegiko bat sartu dittue akordixuan, eta etorkizunian Santaiñes kaleko beste bat gehitzeko aukeria aurreikusit dabe. Iñaki Arriola Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuak eta Miguel de los Toyos alkatiak erakundien arteko kolaboraziñua aldarrikatu eben, holako kasuetan ezinbestekua dala azpimarratuta. Alkatiaren berbetan, "Udalak, dittuan baliabidiekin, ezin dau etxebizitza honen alokairua kudeatu". Atzo siñatutako hitzarmena sei urterako da, luzatzeko aukerarekin.

Azaldutakuaren arabera Etxebideko erregistruan alokairuko etxebizitza eskatzaile gisa izena emonda daguazeneri emongo detsez errentan zazpi etxebizitza honek. Bete biharreko baldintzen artian, bestiak beste, Eibarren gitxienez hiru urtian errolatuta egotia be eskatuko dabe. Etxebizitza Saillak 263 etxebizitza kudeatzen ditu Eibarren eta, gaur egun, 861 eskatzaile dagoz alokairuko etxebizitza lortzeko izen-emonda, "horretako 124 Eibarrik kanpo bizi dira", esan eban Arriolak.

asteko
2.922
datua

kontsulta jaso zittuan 2018xan Udal Artxibuak, aurreko urtian baiño %15 gehixago; gehixenak, 2.072, zuzenian arxibora juanda egin ziran. laz 542 erabiltzaille hartu zittuen eta 586 kaja gehitu jakozen Artxibuari.

Konzentraziñua deittu dabe Egogain gerontologikoko bihargiñak eguaztenerako

Egogain Gerontologia Zentruko bihargiñak euren lan baldintzen eta eskintzen daben zerbitzuaren kalidadiarene aldeko mobilizaziñuekin segitzen dabe. Langille Komitekuak aditzera emon dabenez, martitzenian Donostian egon ziran: "Info-puntuak sortu genduan Foru Aldundiko bihargiñeri eta gerturatu diran herritarri informaziñua emoteko eta ekintzaren inguruan oso baloraziño positibua egitten dogu".

Horrekin batera, eguaztengan Eibarren bi alkarrataratze zaratsu egin zittuen, Amañan eta Egogain gerontologikuan eta bixetan jendiak emon daben erantzunarekin oso pozik daguazela diñue: "Ixa-ixa bihargin guztiak egon giñan, gaixorik daguazanak eta biharrian egon ziranak, horrek baiño ez ziran falta izan". Da-



tozen egunetan be aurrera segiduko dabe mobilizaziñuekin eta eguaztenerako (hillak 23) beste alkarrataratze zaratsu bat iragarri dabe, 12:00xetan Untzagan.

Hezkuntza premiña berezixen inguruko ikastarua gurasuendako

Udaleko Gizartekintza Saillak "Eskola-familia: hezkuntza premia bereziak" izenburuko ikastarua antolatu dau eskola adiñian daguazan hurren gurasuendako, "Gurasoak Marxan" programaren barruan. Portalean izango da ikastarua eta bi saio izango dira, bakotxa bi orduko iraupenarekin (18:30xetatik 20:30xetara). Baikarak emongo dau, urtarrillaren 22 eta 29xan. Ikastaruari buruzko informaziñua eskatzeko edo izena emoteko ikastetxietako Guraso Elkarteetako ordezkariexekin kontaktuan ipiñi leike edo, bestela, Gizartekintzan galdetu.



EH-ko Mus Txapelketako kanporaketa hillaren 27xan jokatuko da

Aurten be Euskal Herriko Mus Federaziñuak Euskal Herri maillako txapelketia antolatu dau eta Eibarko kanporaketa urtarrillaren 27xan, domekan jokatuko da Hirurok tabernan. Txapelketan parte hartzeko 16 urtetik gora izatia eskatzen dabe antolatzaillak eta bikoteko 20 euro ordaindu biharko dira. Txapelketari buruzko informaziño guztia interneten, www.ehmus.eus helbidian begiratu leike.



Egiptoko janari-taillarra antolatu dabe Ongietorri egitasmuan

Urtarrillaren 29xan, martitzenian egingo da ...eta kitto! Euskara Elkartearen Ongietorri egitasmuari lotutako Munduko Janari Taillarraren hurrengo saia. Izena emotera animatzen diranak oinguan janari egipziarra preparamen ikasiko dabe. Taillarra Portaleko sukaldian (3. pisuan) izango da, 18:30xetan. Izena emoteko edo informaziñua eskatzeko 943200918 telefonora deittu leike.



MARITXU GANCHEGUI JUARISTI

(2019ko urtarrilaren 12an hil zen, 97 urterekin)



**Senidekoen izenean,
ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.**



Irati Jimenez Dorronsoro eibartar gazteak urtebete darama Washington-en, Munduko Bankuan (MB) energia aholkulari bezala lanean. Munduko Bankuaren helburu nagusiak pobrezia aurre egitea eta hazkundea eta garapena bultzatzea dira, eta 2030. urterako muturreko pobrezia desagerrarazteko helburua ezarri zuen orain dela urte batzuk. Iratik gabonetako jaiak aprobetxatu ditu Eibarren aste batzuk egoteko, eta bere lanera bueltatu aurretik berarekin egoteko aukera izan dugu.

IRATI JIMENEZ (energia aholkularia):

“Munduko Bankuan nire bezeroak herrialdeak dira”



Korean bizi ondoren, urtebete darama Washingtonen Irati Jimenez gazte eibartarrak.

- 24 urte besterik ez dituzu eta urtebete daramazu Munduko Bankuan lanean. Nola iritsi zara horraino?

Ingeniaritza zibila ikasi nuen Donostiako Eskola Politeknikoan – lehenengo Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritza. Bigarren mailan nengoenean Koreara joateko beka bat irten zen hango kultura eta hizkuntza ikasteko. Han egon nintzen hilabetez. Laugarren mailan nengoenean berriro joan nintzen karrera amaitzera. Euskal Herrira bueltatzean, Enpresen Zuzendaritza eta Enpresak Nazioartekotzeko masterra egiten nengoela, Eusko Jaurlaritzak ateratzen duen *Beint* Nazioartekotzeko beka-programan hasi nintzen. Programa honen xedea unibertsitateko tituludun gazteak nazioartekotzean trebatzea da. Horretan nengoela Munduko Bankuan ingeniero plaza atera zen. Aurkeztu egin nintzen eta hartu egin ninduten. Zorte handia izan nuen. Uste dut Korean egotea lagungarria izan zela lan hori lortzeko.

- 189 herrialdek osatzen dute Munduko Bankua eta Nazio Batuen baitan dago. 170 herrialde desberdinetako langileak ditu eta bulegoak 130 herrialdetan. Nola azalduko zenuke bere zeregina, labur bada ere?

Munduko Bankuan 5 erakunde desberdin daude, eta ni “Banco Internacional de Reconstrucción y Fomento” (BIRF) delakoan nago. BIRF-ek herrialdeei prestamoak edo maileguak eta aholkularitza eskaintzen dizkie, pobrezia txikitzeko asmoz eta hazkuntza jasangarriaren onurak pertsona guztiengana zabaltzeko xedearekin. Horren barruan The International Development Association (IDA) dago. Entitate horrek herrialde pobreenekin egiten du lan. Herrialde hauek ez dituzte prestamoen interesak ordaintzen, edo ordaintzekotan oso baxuak izaten dira. 75 herrialdez hitz egiten ari gara, eta horietatik 39 Afrikan daude. Donazioak ere egiten zaizkie txiroenei.

- Zein da zure lana?

Nire lanaren ardatza Latinoamerika eta Karibeko herrialdeetan dago, eta hor dago Haiti, lehen apaitzen genuen munduko herrialde pobreenetako bat. Mexiko, Brasil, Argentina edo Costa Rica bezalako herrialdeekin ari naiz lanean. Lan teknikoa eta finantzieroa egiten dut. Esate baterako, ikusi dugu hondamendi natural bat gertatuz gero, Puerto Ricon gertatu zen bazala, energia kontuetan ez daudela prestatuta, eta horren inguruko ikerketa egin dut, arlo horretan nolako beharrak dauden ezagutzeko eta proiektuak aurrera eramateko dirua nondik lortu dezakegun jakiteko.

- Beraz, proiektuentzako diru-iturriak bialatzea da zure lanetako bat.

Banku Mundialak diru mordo mugitzen du. Bere aurrekontua herrialde garatuetatik dator, baina ez da nahikoa proiektuak finantzatzeko. Beste fondo batzuetatik ere hartzen dugu dirua. Fondo asko daude, nik usate nuena baino azkoz gehiago, eta nire lana, alde batetik, fondo desberdinetatik dirua lortzea da. Horietaz aparte, Banco Interamericano de Desarrollo eta Banco de Desarrollo del Caribe daude, eta Kanadak adibidez diru pila bat ematen du. Hori guztia ondo aztertu eta plasmatu egin behar da.

- Dirua lortu ondoren, beraz, lan teknikoa dator?

Hori da. Proiektu guztia guk lantzen dugu: ikerketa, bideragarritasuna, inplementazioa... Momentu honetan ditudan proiektuak elektrizitatearekin, aldaketa klimatikoarekin edo geotermiarekin lotuta daude. Proiektu guztiak ingurugiro kontrol zorrotzak pasatu behar dituzte. Nikaraguan planta geotermikoa prestatzen hasi ginenean, esate baterako, erreserba ez zen lekua aukeratu genuen. Energia aholkulari moduan nago lanean, baina laster aldaketa klimatikoaren enbaxadore moduan hasiko naiz. Hori borondatezko lana izango da, baina nire lanerako oso ondo datorkit.

- Jende asko ezagutzeko aukera izan duzu?

Hau enpresa oso handia da eta nire bezeroak herrialdeak dira. Hori dela eta, goi mailako agintariekin egoten naiz, askotan ministro edo presidenteeekin. Kontratuak negoziatzen denbora asko ematen dugu elkarrekin.

- Nolakoak dira tratuan?

Bazkaltzera edo kafetxo bat hartzera joaten garenean solasaldiak oso normalak izaten dira. Gauza arruntez egiten dugu berba, laneko gauzak alde batera utzita. Denoi gusztatzen zaigu deskonektatzea. Anekdotan moduan, behin Espainiako erregea etorri zi-

Bere lana dela-eta, Irati harreman zuzenean dago Latinoamerika eta Karibeko herrialdeetako agintariekin.



“Izakera gogorra izan behar duzu gauzei aurre egiten jakiteko”

tzaigun bisitan, Trumpekin egotera etorri zenean, eta Borrelekin ere egon naiz. Asociación de Científicos Españoles delakoan hitzaldi bat eman nuen eta han Espainiko enbaxadorea ezagutu nuen. Bere emaztea euskalduna da. Oso jatorrak dira eta askotan etortzen dira hona.

- Desberdina da lan egiteko modua?

Washington munduko networking sare handiena da. Kontaktuak etengabe egiten dira, eta ohikoa da zure txartela poltsikoan eramatea eta bata eta bestearekin geratzea kafetxo bat hartzeko. Ordutegi aldetik malgutasun handia dago. Ez dago lanera sartzeko edo irteteko ordutegirik. Egun librea hartzen badut edo etxetik lan egitea erabakitzen badut, ez da ezer geratzen. Hori bai, nire lana egin behar dut, bestela ez dago dirurik, eta gaixotzen bazara han ez dago bajarik eta horrelakorik. Eta beti egon behar naiz “konektatuta”. Horregatik etorri naiz hila bete hona. Bestela, ezinezkoa litzateke. Bestalde, lehen ez neukan munduan gertatzen diren arazoei buruzko kontzientzia edo

ez nuen arreta handia jartzen. Orain, esnatzen naizenean, lehenengo gauza, informazioa jasotzea izaten da.

- Nola eramaten da etxetik hain urrutiko egitea?

Hasieran negar pila bat egin nuen. Txarto pasatu nuen. Hizkuntzarekin ere bai. Guk dakigun ingelesa hemen ikasitakoa da, eta txinatar batek ikasitakoa Txinakoa. Gero aldaketa kulturala dago. Egia esan, Korean bizitzeak asko erakutsi zidan: ez zen erraza izan, baina asko balio izan dit gerorako. Dena dela, pozik nago asko ikasi dudalako, aldaketa klimatikoari buruzko Parisko akordioaren inguruko detaile guztiak, esaterako.

- Banku Mundiala oso urrutiko gelditzen zaigu. Horrelako leku batean lan egitea espero zenuen?

Ez, eta burutik pasatu ere ez. Irudia ez da oso ona eta izakera gogorra izan behar duzu gauzei nola aurre egin jakiteko. Zezena adarretatik hartu behar duzu, bestela Banku Mundialak norbera irensteko arriskua dago. “Nik hau aurrera eramango dut” pentsatu behar duzu. Bestela, benetan zaila da. Herrialde desberdinetako jendearekin egon behar duzu -tratua nire partetik denekin iguala da-, ahalmena eduki behar duzu zenbat proiektu dituzun jakiteko, mentalki antolatuzeko, bakoitza zein fasetan dagoen jakiteko... Zailtasunak zailtasun, oso gustora nago eta beti izan dut etxekoan laguntza. Hori ere oso garrantzitsua da. Eurek animatu naute beti aurrera egitera.

Eibarko Udalak 2025. urtera arteko Ingurumen Ekintza Plana zehaztu du eta Arrate Kultur Elkarteak 'Basogintzaren kudeaketarako proposamena naturatik hurbil' izeneko erakusketa jarriko du martxan gaur Topalekuan 'Kolore guztietako basoak' elkartearen eskutik. Ingurumenaren arloan herrian jarraitu beharreko estrategia zehazten du lehenengoak eta euskal basoen arazoei irtenbidea eman nahi die bigarrenak.

Ingurumena zaintzeko proposamenak

Herriaren jarduna ingurumenaren arloan antolatu eta egituratzeko 16 programa eta 80 ekintza zehaztu ditu Eibarko Udalak Ingurumen Ekintza Planean. Plan Estrategikoa-ekin eta Mugikortasunaren

Plan Estrategiko eta Integralarekin bat egiten duen plana da ingurumenarena, eta herriaren trantsizio ekologikoa bultzatzeko erronka du, besteak beste.

Azkenaldian denon ahotan dagoen terminoa da trantsizio ekologikoa eta Pedro Sanche-

zen Gobernuak izen hori duen ministerio bat sortu du etorkizun bideragarria lortzeko politikak bideratzeko asmoz. Baina, zer da trantsizio ekologikoa? Gizapedia webguneak horrela definitzen du: *"Eremu lokaletan nahiz globaletan sortzen diren ingurumen eta gizarte krisi eta arazoei aurre egin eta haiek gainditzeko, hazkundera oinarritutako ekonomia eta dagozkion paradigma industrial eta estruktibistak baztertu, eta jasangarritasunean, elkartasunean eta partaidetzan oinarritutako gizarterantz abiarazten den prozesu teknologiko, ekonomiko eta soziala da. Trantsizio energetikoaren kontzeptua ere barneratzen du, baliabide fosiletan oinarritutako energia iturrietatik energia berriztagarrietara aldatuz".*

Udalaren Ingurumen Ekintza Planak bost ildo estrategiko zehazten ditu. Batetik, karbono urriko energia-eredu baten alde egitea eta herria aldaketa klimatikora egokitzea bultzatzea. Bigarrenik, herriaren ingurumen-kalitatearen hobekuntza eta baliabideen kude-

aketa egokian aurrera egitea, ekonomia zirkularreko eredu batean oinarrituz. Hirugarrenik, natura-ingurunearen eta hiri-ingurunearen kudeaketa integrala egitea, espazio degradatuak berreskuratzeko. Laugarrenik, mugikortasun jasangarria sustatzea, herri barruan eta herrien artean. Eta azkenik, ingurumen-politikak sustatzeko gobernantza-eredu bat eratzea.

Plana 2025. urtera arte gauzatzeko asmoa du Udalak eta 2019an aldaketa klimatikoaren aurkako lana egingo du Ingurumen Sailak. 2019ko aurrekontu-zirriborroak erronka horri ekiteko lerro bat jasotzen du eta horren inguruan Plan Estrategikoa egiteko nahia du sailak. Bestetik, herritarrak ingurumenaren arloan sentsibilizatzeko hainbat kanpaina egingo ditu aurten ere. Beraz, urtero egiten diren Zuhaitz Egurenaren, Mugikortasun Iraunkorraren Europar Astearen eta hondakinak murrizteko eta birziklatzeko kanpainez gain, aldaketa klimatikoari buruzko sentsibilizazio kanpaina ere egingo da.



ERAKUSKETA: Urtarrilaren 18tik 27ra
HITZALDIA: Urtarrilaren 24an. 19:00etan

"Gutik Zura" DOKUMENTALaren proiektzioa:
Urtarrilaren 27an. 18:00etan



Arrate Kultur Elkarte



DIONISIO VELAR SAGARNA

2018ko abenduaren 30ean hil zen

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Plan hau baino zaharragoa da Eskolako Agenda 21 egitasmoa, 2003. urtetik Debabarreneko ikastetxeetan egin dena, baina herriko ikasleek lantzen dituzten proposamenak baliagarriak izaten dira ingurumenaren arloan lan egiteko. 2018an, adibidez, Ingurumen Sailak Natura Ondarearen Inbentarioa landu du Eskolako Agenda 21 egitasmoan parte hartu duten ikastetxeetako ikasleen ideietatik abiatuta, eta herriko ingurunearen kudeaketa eraginkor eta egokia egiteko ezinbesteko lan-tresna izango da sailarentzat. Aurten hiri-hondakinaren gaia landuko dute ikasleek.



Herriaren jardunean ingurumena kontuan hartzea nahi du Udalaren planak.

Kolore guztietako basoak

Ingurumenarekin jarraituz, 'Kolore guztietako basoak' proposamena jasoko du Topalekuak eta, horren berri emateko, erakusketa bat zabalduko da gaur urtarrilaren 27ra arte (basogintzaren kudeaketarako proposamena naturatik hurbil), eta hilaren 24an hitzaldia eskainiko da 19:00etan. Hilaren 27an, berriz, 'Gutik Zura' dokumentala eskainiko da 18:00etan.

'Kolore guztietako basoak' elkarteak gure basoen analisi

sakona egin du eta hortik abiatuta proposamenak garatu ditu. Topalekuko erakusketan eta hitzaldian analisiaren eta proposamenaren berri emango du, "biak direlako garrantzitsuak", Keko Alonso biologoaren eta 'Kolore guztietako basoak' plataformako kidearen ustez.

Orain dela urte bi sortu zen 'Kolore guztietako basoak' elkarteak. "Ingurumen-krisiaz gain ingurumenaren arloan krisi ekonomikoa zegoela ikusi ge-

nuelako", eta egoera horren aurrean zerbait egiteko beharra ikusi zuten. "Arlo ekonomikoari dagokionez, gure paisaian pinuak ziren nagusi eta errentagarritasun arazoa zegoen. Batetik, prezioa jaitsi zelako; eta bestetik, 2. edo 3. belaunaldiko lursailek ez zutelako lehen bezala produzitzen. Beraz, lursailen jabeek lehen irabazten zutenaren %30-40 irabazten zuten". Bestalde, ingurumenari dagokionez, "pinuen inguruan burbuila antzeko bat

sortu zen", Alonsoren berbeetan. "Egokia ez zen tokietan pinuak landatu zituzten eta biodibertsitatea izugarri sinplifikatu zen". Kantabria eta Asturiaseko biodibertsitatearekin alderatuz, adibidez, Bizkaia eta Gipuzkoak oso ezberdina da, "nahiko antzekoa izan behar zenean". Gainera, flora inbaditzaile asko sartu zen. "Eta lurrari dagokionez, arazo handia zegoen, erauzketa eta mozketak metodoak oso zakarrak izan zirelako".



Euskara Elkarteak

Urkizu pasealekua 11, solairuartera
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.eus
www.etakitto.eus

URTARRILA

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

OTSAILA

			1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

MARTXOA

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

APIRILA

	1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14	
15	16	17	18	19	20	21	
22	23	24	25	26	27	28	
29	30						




2019ko
URTARRILA-APIRILA
kultur
eskaintza

www.etakitto.eus

herriko albisteak, agenda, argazkiak, bideoak...

Elkartearen ustez ingurumenaren gaia kontserbazio zorrotzaren eta produkzioaren artean geratuta zegoen, eta alde biak uztartzen zituen eredu aurkitu zuten Europan, Naturatik Hurbileko Basogintza (NHB). "Gurea bezalako tokietan ezarri da batez ere, toki menditsu eta hezeetan". Suitza da eredu garbiena eta orain dela 115 urte jarri zuten martxan NHB sistema. "Monolaborantzarekin, espezie batek huts egiten badu, zein beste espezie landatu ahal den pentsatzen du jendeak, baina ez du pentsatzen beste kudeaketa modurik ote dagoen". Alonsoren ustez beste produkzio alternatibek atek itxita dituzte, dena batera landatu eta moztzen duten lursailak ematen dietelako basoko diru-laguntzak. "Besaia enpresarekin lerro horretan nabiltzan lanean eta kontu hau bidegabekoa dela iruditzen zait".

Ezer egin ezean, Alonsok garbi dauka. "Lurra hondatzen eta biodibertsitatea sinplifikatzen duen sistema garatzen ari gara. Biologo, ekologo eta baso-ingeniariek ondorioak aurreikusten ditugu, eta gaur egun begi bistan dugu ondorio bat, pinuen gaixotasuna".



Gure basoen egoera konpontzeko proposamena egin du "Kolore guztietako basoak" elkarteak. **Periko Iriondo**

"Biodibertsitatea gutxi batzuen kapritxoa dela pentsatzen du askok, baina suntsipen handia eragin dugu"

Alonsoren ustez mahai gainean jartzen diren produkzio alternatibak ez dira gure erreallitateko egokitzen. "Aldaketa progresiboa egin beharko genuke, eta espezie aloktonoak espezie autoktonoengatik aldatzen dituzten ekoizpen alternatibak probatu beharko lirakeke. Metodo hauek lursail publikoetan probatu beharko lirakeke, errentagarritasuna atzeratu daitekeelako. Gure espeziekin lan egiten berrikasi beharko genuke. Gero, zifrak konparatu eta ikusiko dugu zer iritertzen den".

'Kolore guztietako basoak'

elkarteak espezie autoktonoak erdigunean jartzeko proposamena egiten du krisitik irteteko, basoetako dibertsifikazioa bultzatuz. "Biodibertsitatea gutxi batzuen kapritxoa dela pentsatzen du askok, baina suntsipen handia eragin dugu".

Guzti honen berri argi eta garbi emango dute erakusketan eta hitzaldian, "ulertzeko zaila dela dakigulako". Elkartearentzat berebizikoa da gizarteak guzti honen berri izatea. "Eztabaida soziala egon behar da, gizarteak erabaki behar duen gure basoentzat".

URTARRILA

Urtarrilak 20, domeka

Domeketan jolasian. Tor magoa, 2-5 urteko umeentzat. 12:00etan ...eta kitto!-n. Lekua bete arte.



Urtarrilak 23 eta 30, eguaztena

Masa italiarrak egiteko tailerra. 19:00etan ...eta kitto!-n.

Urtarrilak 29, martitzena

Munduko Janarien Tailerra, Egipto. 18:30etan Portaleko sukaldian.

OTSAILA

Otsailak 4, astelehena

Santa Ageda kalejira ...eta kitto!-rekin. 17:30etan Urkizu-Estaziño-Urkizu.



Otsailak 5, martitzena

Harixa Emoten literatur tertulia. Maite Darceles-en "Bihotzean daramagun mundua". 19:00etan Portalean.

Otsailak 15, barixakua

Barixakuak jolasian. 17:00etan ...eta kitto!-n.

Otsailak 16, zapatua

Berbalaguntzat irteera Txuri Urdiñera.

Otsailak 20, eguaztena

Batido energetikoen ikastaroa. 19:00etan ...eta kitto!-n.

Otsailak 20, 21 eta 22

Neguko merkealdien azokan Euskeraz Primeran! kanpaina.

Otsailak 26, martitzena

Munduko Janarien Tailerra. 18:30etan Portaleko sukaldian.

MARTXOA

Martxoak 1, barixakua

Aratosteetako pregoia. 21:00etan Untzagako karpan.



Martxoak 3, domeka

Play Back lehiaketa, LH 5-6 mailakoentzat. 17:00etan Untzagako karpan.

Martxoak 5, martitzena

Harixa Emoten literatur tertulia. Joanes Urkixoren "Ekaitza urrun" liburua. 19:00etan Portalean.

Martxoak 12, martitzena

Euskararen Transmisioaren Mintegia. 09:00-14:30 Portaleko areto nagusian.

Martxoak 14, eguena

...eta kitto! Euskara Elkartearen Urteko Batzar Nagusia. 19:00etan 1. deialdia, 19:30etan bigarrena.

Martxoak 26, martitzena

Euskañola hitzaldia, Pello Etxanizekin, 19:00etan ...eta kitto!-n.

Martxoak 27, 28 eta 29

V. Gilda Lehiaketa, Euskeraz Primeran! kanpainaren barruan.



Martxoak 29, barixakua

Barixakuak Jolasian, 17:00etan ...eta kitto!-n.

APIRILA

Apirilak 2, martitzena

Harixa Emoten literatur tertulia. Irati Elorrietaren "Neguko argiak" liburua. 19:00etan Portalean.

Apirilak 3, eguaztena

Korrika kulturalaren barruan, "Euskaldun berrien kluba" ikuskizuna. 19:00etan Portalean.

Apirilak 9, martitzena

Munduko Janarien Tailerra. 18:30etan Portaleko sukaldian.



LIKIDAZIOA

Jubilazioa dela-eta



San Agustin, 2
943 203762
www.desvan.net



38 urte eta gero, denda itxiko dugu. Eskerrak eman nahi dizkiegu gure bezeroei, urte hauetan gugan ezarritako konfidantza guztiagatik.

Laister arte!

- Eibarren egindako markak
- Moda
- Etxeko osagarriak
- Yoga:
"Yoga + Jarrera-Adimena"
"Jarrera berregokitzea"
- Pilates Essential:
"Lur eta aireko fusioa"
- Urtebetetzeak
- Formakuntzak
- Dastatzeak
- Hitzaldiak
- Ekitaldi korporatiboak

Eta askoz gehiago!

moments
with
a story
behind

hello@helmethouse.es
943 849 310

BLAS ETXEBERRIA 1,
COLISEO ONDOAN!

helmet house

CONCEPT STORE





jaione yeregi

“Inguruko baserritarrak ezagutzera eman eta ekoizten dituzten produktuak hurbildu nahi dizkigute herritarroi”

Baserrikoa

Azken urteotan, elikagaien ekoizpen eta kontsumo ereduak aldatzen joan dira eta gaur egun gehiengoak jaten dituen elikagaiak jada ez datoz gure inguruko baserri eta baratzetatik, urrutiko ustiapen industrialetatik baizik.

Horrekin batera elikagaien banaketa eta salmenta ere aldatzen joan dira: supermerkatuak, hipermerkatuak eta azkenik azalera handiko merkatalguneak heldu ziren gure herrietara, eta horiekin batera gure baserriko produktuen salmenten gainbehera.

Gaur egun produktu bera urte osoan eskuragai daukagunez, jada ez ditugu garaian garaiko produktuak kontsumitzen, ezta horiek eskaintzen dizkiguten onurak aprobetxatzen ere.

Baserriaren etorkizuna bermatzeko, tokiko eta saioiko produktuen kontsumoen aldeko apostua egin

beharra daukagu. Gure baserritarrek, elikagaiak ekoizteaz gain, herriko ingurune naturala zaintzen dute, paisaia eratu, animalia eta landareen biodibertsitatea mantendu... Usadio, ohitura eta kulturaren gordeleku dira.

Hori dela eta, Debemen Debabarreneko Landa Garapenerako Elkarteak, eskualdeko Udalekin batera, baserriko produktuen kontsumoa bultzatzeko helburua duen “Baserrikoa Debabarrena” izeneko programa jarri du abian.

Programa horren bitartez, inguruko baserritarrak ezagutzera eman eta ekoizten dituzten produktuak hurbildu nahi dizkigute hiri eta herritarroi. Eskualdeko hainbat komertziotan bezala, gurean ere produktu hauen aldeko apostua egin dugu. Bertan gaituzue zain.



Etiketak? Ez, eskerrik asko

Thomas Alva Edison-en biografiak etiketatik haratago ikusi ahal izateko boterea erakusten duen pasarte bat dauka. Asmatzaile ospetsua Michigan-era joan zen 7 urterekin, eta han 12 aste besterik ez zituen eman eskola batean ikasten. Egun batean, bere amarentzako gutun bat eman zioten. Amak gutuna irakurri zuenean hunkituta gelditu zen eta hau esan zion semeari: *“Seme, jenio bat zara eta ezin dizute ikastetxe horretan erakutsi, hemendik aurrera nik irakasteko esan didate”*. Urte batzuk geroago, bere ama hil zenean, gutun hori aurkitu zuen, eta horrela zioen: *“Thomasek buruko gaixotasuna du eta ezin da ikastetxe honetara bueltatu”*. Edison erabat hunkitu zen eta hau idatzi zuen bere egunerokoan: *“Thomas Edison buruko gaixotasuna zuen haurra izan zen, eta bere ama heroikoari esker, sekulako jentzia izatera heldu zuen”*.

Oso garrantzitsua da gure inguruan daudenen konfidantza. Konfidantza hori izan gaitezkeena izan ahal izateko animatzeko eta motibatuzeko behar dugun gasolina da. Klitxe bat dirudi, baina heziketaren eta psikoterapiaren esentzia da, eta osasun mentalean hedatzen hasita dago.

Osasun arloko profesionalak sarritan ikusten dugu pazienteak etiketatzen ditugunean bere sendatze bidean desanimatu egiten direla, eta diagnostikoa konponezina, mugiezina eta entitate propioa duen zerbaitean transformatzen dute. Horregatik, **berezi-**

arrate garitaonandia



ki umeeekin, diagnostikoez sendotasunak eta baliabideak izan behar dituzte.

Azkenaldian, iraultza bat ematen ari da diagnostikoaren sistema tradizionalan. Osasun mentaleko eredu biomedikua zaharkituta dago, estigmari bidea ematen dio, auto-kulpabilizazioa eta ezkortasuna errekupeazioan. Sufrimendua “burmuinaren gaixotasuna” bazala ulertzeak, diabetesa balitz, soilik farmakologikoak diren tratamenduak erabiltzeko jorera eta haienganako enpatia txikiagotzea eragiten du osasun arloko profesionalengan. Psikofarmakoak larregi erabiltzen dira (benzodiacepina batipat). Izan ere, Espainia bigarren kontsumitzailea da mundu mailan. Kezkatzekoa da, eta batez ere haur eta gazteei dagokionean. Nazio Batuen Erakundeak psikofarmakoen preskripzioa tratamenduaren azken baliabidea izan dadila gomendatzen du.

Kontuan hartuta haur askok bere garapenean laguntza nahikorik ez dutela, psikofarmako larregi kontsumitzen direla, eta goruntz doala haur hiperaktiboaren etiketajea, zerenbat Thomas Edisonen ez dute euren potentziala garatuko? Garrantzitsua da inplikaturako agente guztiok gogoeta hau egitea. Zein kaltegarria izan daitekeen haurren arazoak saioz ez detektatzea eta etiketa eta estigma bat ekar dezaketean moduko diagnostikoez egitea.



IKASKETAK ETA LANA UZTARRI BEREAN

URTARRILA



XABAT
(IRAKASLEA)

IMANOL ETA GARIKOITZ
(ZUZENDARIA/IDAZKARIA)

ALAITZ ETA RUBEN
(IKASLEAK)



IKASKETAK ETA LANA UZTARRI BEREAN

Gazte guztion ardura edo kezka nagusia izaten da ikasketak amaitutakoan lana aurkitzea. Azken urtean lan-egoera zertxobait hobetu bada ere, erronka ez da makala. Testuinguru horretan jaio da Heziketa Dualaren kontzeptua, gazteon etorkizuna argitu eta lana eta ikasketak uztartze aldera.

Lerro hauetan Heziketa Duala zertan datzan, zein helburu nagusi duen eta haren alde txarrak eta onak zein diren aztertuko dugu. Horretarako, gurekin izango ditugu, batetik, Eibarko Armeria Eskolan produkzioari buruzko aplikazio mekanikoko goi-mailako zikloa ikasten diharduten gazteak, Alaitz eta Ruben; bestetik, momentuan modalitate horretan irakasle ari den Xabat; eta, azkenik, aipatutako zentroko zuzendaria, Imanol Urresti, eta komunikazio-arduraduna, Garikoitz Garmendia.



Zertaz ari gara Lanbide Heziketa Dualaz ari garenean? Labur esanda, metodologia honek ikaskuntza-prozesuak konbinatzen ditu ikastetxeetan eta enpresetan. Xede nagusia Lanbide Heziketako titulua lortzeko aukera ematea da, zentroen eta enpresen arteko lankidetzan garatzen den ikaskuntza-prozesu baten bidez. “Eginez ikasi, baina ez lan egin ikasiz” esaldiak jasotzen du metodologiaren muina. Xabatek, Arme-

ria Eskolako Heziketa Dualaren arduradunak dioenez, “oso prozesu interesgarria da eskolan hartutako kompetentziak enpresan landu ahal izatea”.

Armeria Eskolan LH Dualak duen ibilbideaz galdetuta, Imanol Urresti zuzendariak honela diosku: “Armeria Eskolan Heziketa Dualaren lan-ildoak 2014. urtean hasi zen martxan jartzen, eta geroztik indarra hartzen joan da; urtero-urtero metodologia hau praktikatzen duen ikasle kopurua igotzen doa, eta indarra hartzen ari da”. Nahiz eta Euskal Herrian bertan hezikuntza-prozesu hau eskaintzen duten beste hainbat ikastetxe egon, komunikazio-arduraduna den Garikoitz Garmendiak zera dio: “Inguruko ikastetxeekin harremanetan egon arren, indibi-

dualki edo bakarka egiten dugu lan; bakoitzak bere metodoak ditu”.

Ikasleek ikasketa mota hau egiteko erabakia hartzen dutenean, hainbat arrazoik bultzatuta egiten dute. Abantailez hitz egiteko orduan erraz jardun dute gure protagonistek: “Aukera paregabea da enpresak ikasleak ezagutzeko eta etorkizunean enpresa horretan bertan lanpostu bat lortzeko; gainera, hilero ordainsari bat



Alaitz eta Ruben ikasleak.



Xabat irakaslea.



Imanol zuzendaria eta Garikoitz komunikazio-arduraduna

jasotzen du ikasleak, eta hori gutxi ez eta, ikasleak bere autonomia lantzen du, enpresaren kulturara egokituz.” Bestalde, ez dugu ahaztu behar LH Dualak gazteak lan-merkatuan sartzeko bidea erraztea dela xede, horretarako kalitateko enpleguak sustatuz.

Dena den, abantailak ikasleentzat ez ezik, enpresentzat eta ikastetxeentzat ere badira. Izan ere, enpresak sistema honen bidez pertsonak ezagutu eta hezitzeko abagunea du. Era berean, belaunaldi-erreleboari

aurre egiten ere laguntzen du. Ikastetxeei dagokienez, enpresakiko harremanak sendotzea ahalbidetzen du dualak, eta lan-merkatuko premiak gertutik ezagutzea ere bai.

Hala ere, oro ez da urre, alde txarra ere baitaika ikasteko sistema horrek; txarra baino, konplexua, Alaitzek eta Rubenek diotenez. Izan ere, “ikasleak egunean ordu asko sartzen ditu lanean eta ikasten, eta sakrifizio handia da; horrez gain, kasu askotan udako oporrak ere lanean pasatzen dituzte ikasleek; azken finean, aukera aparta izan arren, ondo funtzionatu ahal izateko, ikaslearen aldetik, konpromiso eta sakrifizio handia eskatzen du dualak”.

Hasieran aipatu bezala, ikasle ororen kezka da ikasketak amaitzean lana aurkituko ote duten. Beldur dira ikasketak amaitu eta langabezian geratzeko, la-

nik aurkitu ezinda. Metodologia honek daukan indar-puntu nagusia da ikasleen oso kopuru altua geratzen dela duala egin bitartean aritutako enpresan lanean. Zuzendaria eta komunikazio-arduraduna bat datoz esatean ikasleen %90 baino gehiagok lana daukatela Heziketa Dualeko ikasketak amaitzen dituztenean. Era berean, ziurtatzen dute, hala gertatzen ez den kasuetan, “10 horretan alegia, ikaslearen jarrerarengatik izaten dela normalean (konpromiso falta enpresarekiko, seriotasunik eza ...), eta ez enpresak ez duelako ikasle hori onartu.

Gai honetan aditu eta aritu direnen hitzak entzunda, argi dago aukera paregabea dela beraz, ikasi bitartean lan egitearena, lan-etorkizuna ziurtatzeko modua baita. Esaerak dioen bezala: ereindako lanak bere fruitua ematen du.



gaztekitto



gazteOn! eta kitto



...eta kitto!

ERREPORTAJEA ONLINE

Erreportaje honetako protagonisten hitzak gertuagotik ezagutu nahi badituzu, edota irakurri beharrean nahiago baduzu bideoz ikusi... ez ezazue galdu YOUTUBE-n “gazteOn! eta kitto” kanalean dagoen bideoa.

Hona hemen link-a:

<https://youtu.be/nVXwRiqVQlc>

EZ EZAZUE BIDEOA GALDU ETA EMAN IZENA KANALEAN!

Denborapasak



MALEN ILLARRAMENDI

19 urte

Lehentasunak lehentasun

Urte berriarekin batera, zaharraren gaineko balantzea egiteko ohitura izaten dugu, eta aldi berean, datozkigun 365 egunetarako asmo onenak bilatzen hasten gara: “elikadura zainduko dut, kirola egiten hasiko naiz, ikasketak egunean eramango ditut...”.


Zutabe honetarako gai bila nenbilela, azken horretatik abiatzea bururatu zitzaidan, alegia, asmoenetik. Idazten hasi, ordea, eta eskuak lehenengotik eraman nau, balantzearenetik. Gabonetan kateatuta edo, opariak etorri zaizkit burura, etxeko txikiei erosten zaizkien jostailuak, batez ere.

Urte batzuetatik hona ohiturak zertxobait aldatu badira ere, oraindik asko geratzen zaigu jostailuen publikitatean ere erabateko berdintasuna lortzeko. Izan ere, neskentzako eta mutilentzako jolasak eta jostailuak bereizi egiten dira oraindik: arrosa kolorekoak neskentzat, urdinak mutilentzat; kotxesillak eta kopinak neskentzat, autoak eta super heroiak mutilentzat, eta horrela zerrenda amaiezina osatzeraino.

Jakin badakigu izugarritzko garrantzia duela txikitatik giza baloreetan eta berdintasunean hezteak, baina jokatu, oraindik, bestela jokatzeko dugula esango nuke. Ikusi besterik ez dago emakumeen kontrako indarkeria-kasuak etengabe goraka doazela eta horren atzean, zalan-zarik gabe, txikitatik ezberdintasunean heztearena dago.

Beraz, joka dezagun etxeko txikiekin nagusitan izatea nahi dugun “pertsonek” sortzeko ahaleginak eginez. Geu gara txikien eredu, eta ezinbestekoa da gure jarrearak eta printzipioak bat etortzea, eta horretan badugu zer ikasia oraindik. Izan dadila urte berrirako asmo nagusia! Kiloek, kirolak, ikasgaiek eta -abarrek itxarongo dute. Lehentasunak lehentasun!

- Bidebarrieta
- Mekola
- Isasi
- Txantxazelai
- Abontza
- Ubitxa
- Barakaldo
- Urki
- Untzaga
- Amaña
- Legarrea
- Urkizu



Horizontala

3. Zelan deitzen da Eibarko frontoia?
5. Eibarko liburutegiaren izena.
8. Otsailaren 3an Eibarren egin eta jaten den opila.
9. Eibarko alkatearen izena.

Bertikala

1. Zenbat urte daramatza Eibarko futbol taldeak lehenengo mailan?
2. Eibarren zelan esaten zaio 'Ostirala'ri ?
4. Ixua gaintetik Markinako bidean dagoen Eibarko auzoaren izena.
6. Eibarko patrioiaren izena.
7. Ze hiletan ospatzen dira Arrateko jaiak?



Avia Eibar Rugbyko emakumezkoak historiako partidarik garrantzitsuenaren aurrean

Heldu da eguna: denboraldi hasieratik itxaroten zuten hitzordua domekan izango dute, eguerdiko 13:00etan, Getxon. Bizkaitarrak eta eibartarrak berdinduta dau-de sailkapeneko goialdean, orain arte jokatu-tako partidu guztiak irabazita. La Unicari irabazi zionetik, Eibarko taldeak etziko partidu-a dihardu prestatzen, aurrean aurkari zaila izango dutela jakitun: Getxo RT-k iaz Ohorezko A mailan lehiatu zuen. Partidua irabazten duenak bakarrik izango du Ohorezko B mailan jokatzeko aukera. Maila hori martxoan eta apirilean jokatu den liga bat da, eta bertako bi lehenek Ohorezko A mailan jokatzeko aukera izango dute, hau da, bi jauzi ematekoa denboraldi bakarrean.

Zaleentzako autobusa antolatu dute Getxora joateko eta tiketak Guridi tabernan erosi daitezke, 2 eurotan. Ego-Gainetik irtengo da 11:30ean eta Ermuko Bar Pacon ere geratuko da (11:45). Getxotik Eibarrera 15:00ak bueltan irtengo da autobusa.

Gure herrian errugbiak izan duen hazkundeak emakumezkoen taldean indar berezia izan du; orain dela urte batzuk taldea osatzeko zailtasunak izaten ziren, eta gaur egun, berriz, 35 fitxa ditu taldeak. Hori bai, talde tekniko guztia emakumezkoek osatzen dute: Cristina Guntin eta Amy Williams dira A taldeko entrenatzaileak, Cristina Cabrejas B taldekoa eta Eli Azkunek betetzen ditu delegatuaren funtzioak.



16 urtetik beherako eibartarren taldeak Bilboko Unibertsitariosi irabazi zion azken jardunaldian.

Markel Gutierrezek Euskadiko txapela irabazi zuen 20 kilometro martxan

Eibarko Klub Deportiboko atletak Euskadiko txapela eskuratu zuen Portugaleten jokatu-tako 20 kilometroko martxa proban, oraingoan ere duen maila erakutsiz. Bestalde, Deporrek hainbat ordezkari hartu zuten parte aurreko domekan Elgoibarren jokatu-tako Mugerza Kro-



sean, federatuen zein eskola mailako probetan. Pello Osoro eta Julen Teran izan ziren ordezkari onenak maila absolutuan, Jone Acuña-k 18 urtera arteko proban hartu zuen parte eta Aimar Osa, Iker Gisasola eta Kepa Marquezek 16 urtera artekoan. Eskolarteko mailan Deporrek 11 atleta izan ziren.



Errege egunean Takuai-Amarok taldeko partaideek hitzordua izan zuten Arraten eta 15 bat lagun bildu ziren, bakoitza bere txakurrarekin. Inguruko mendietatik (Krabelin, Kalamua, Akondia, Arrate) ibilbidea egiteko aprobeztatu zuten eta "epe motzean proba bat antolatzeko as-

Takuai txakur-kroseko taldekideak sasoi betean

moa" ere badute. Azken asteburuan bi lasterketatan izan ditugu eibartarrak: Andoni Isusik Asturiasen jokatu-tako Espainiko Kopako azken proban hartu zuen parte, Baltorekin debutatu, eta seniorretan hirugarren sailkatu zen lasterketa azkar eta teknikoan; Andoni Mayok, bestalde, Errioxako "Adopta" ligako hirugarren proban hartu zuen parte eta, zazpi kilometroko zirkuitu lauan, 14. postuan amaitu zuen. Asteburu honetan Linzan izango dute hurrengo hitzordua, elur gaineko Euskadiko txapela jokoan dela (aurrez bertan behera geratu zen elur faltarengatik). Hilaren 27an Euskadiko txakur-kros ligaren hurrengo jardunaldia izango da Zumaian.



MARITXU ARRUABARRENA LARRAÑAGA

(2018-XII-25)

Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.

FAMILIAREN IZENEAN,
ESKERRIK BEROENA
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Deporreko mendizaleek Ezkabako lhesaldiari ekin diote

Aurreko zapatuan 23 laguneko taldeak Iruña eta Olaberren arteko 30 kilometroko ibilbidea osatu zuen, horrela lau etapetan banatutako Ezkabako lhesaldia abiatzeko. Iruña gurutzatu eta, Santo Domingo aldapa ezagunetik behera, Arga ibaiaren magalera jaitsi ziren lehenengo, ondoren Ultzama ibaia eta Burlata, Atarrabia auzo herrien lurretik pasatu eta Arre herrixkara iritsi aurretik. "Orduan hasi ginen Ezkaba mendia alde batetik bestera zeharkatzen. Ezkaba txiki tontortxoaren aurrean (595 m.) eta Ezkabako gotorleku ospetsua gero, 1938ko triskantzaren lekuko iluna (Errepublikaren alde bizia eman zuten oroitzeko plaka bertan dago)". Tontorra 860 metro inguruan dago eta, goitik behera pinudian zehar, Ezkabarte haranean barrena joan ziren, Garrués, Orrio, Olaitz herrixkak igaro eta, azkenik, Olabe herrian amaitzeko zeharkaldia. "Une oro, Frantziara ihesi, etsi-etsian, zihoazen preso haien patua gogoratuz ibili ginen". Izan ere, gauez eta ahal bezala, 1938ko maiatzaren 22 hartan, gehienek ilusioa zapuztea lortu ahal izan zuten errejimenekoek. Etapa luzea, baina inolako zailtasunik gabekoa bete zuten, bazkari oparoarekin amaitu zena. Hilabete ho-



Deporreko hirukotea ibilbidearen lehenengo etapen. **Periko Iriondo**

netan bertan egingo dute bigarren etapa, Olabetik Salgotsera, tartean Antxoritz (868 m.) eta Elixato (921 m.) gaindituta. Urtarrilaren 26an parte hartu nahi dutenek martitzen eta eguenetan eman dezakete izena Klub Deportiboan (19:30/20:30) edo 943-201904 zenbakira deituta.



Beste errekonozimendu bat Kalamuako Manu Agirrerentzat

Oraingoan Cacereseko San Francisco Kultur Esparruaren auditorioan egin zen Espainiako Judo Federazioaren Galan izan zen. Azken denboraldiko kirolari onenak saritzeaz gain, bertan gerriko beltz berriek euren diplomak jaso zituzten eta entrenatzaileek euren tituluak. Kalamuako Manu Agirrek jiu-jitsuko 5. danaren diploma

jaso zuen, gaur egun Euskadi mailan dagoen gorengoa. Asteburu honetan, bera eta Julio Gallego entrenatzaile dituztela, Kalamuako kadeteak Madrilen izango dira jiu-jitsuko kadete eta junior mailetakoko I. Espainiako Kopan. Jiu-jitsuko gerriko beltzen azterketetan epaimahaikide izateko birziklai ikastaroa ere egingo dute.

Juggerra ezagutarazteko proiektzioa bihar Portalean

Bihar 18:00etan "I am juggler" Alejandro Asensiren pelikula-dokumentala eskainiko dute Portaleko areto nagusian. Film horretan juggler kirolaren sorburua eta oraina aztertzen dira, horretarako Miguel Angel "Mike" Ruizek hiru urtetan munduko juggler onena bihurtzeko egindako ibilbideari jarraituta, tartean irabazitako munduko torneo onenetako irudiekin. Kirol-modalitate horretan diharduen Arima Galduak gure herriko taldeak bultzatu du proiektzio hori eta datorren astean Unben izango du jardunaldia.



Orbea kiroldegiak Kopako waterpolo partiduak hartuko ditu gaur eta bihar

Senior mailako Kopa torneoko final-laurdenetako kanporaketei dagozkien partiduak izango dira biak. Aurreko asteburuan final-zortzirenetako partiduan Larraina 11-6 kanporatu eta gero, gaur 21:45ean gizonezkoen Urbatek Donostiako Fortuna hartuko du Orbean. Eta bihar, final-laurdenetako kanporaketan ere, emakumezkoen Urbatek Larrainaren aurka jokatuko du eszenategi berean, 20:35etik aurrera.

Eibarko Txirrindulari Elkarteak zehaztu du 2019ko egutegia

Urtarrilaren 12an egin zuen Eibarko Txirrindulari Elkarteak bere urteroko batzarra eta gai-ordenean zeuden proposamenak onartu zituen, 2019rako aurrekontuarekin batera. Denboraldi berrirako proben egutegia ere jakinarazi zuten: otsailaren 24an junior mailako 41. Udaberri Saria jokatu da, martxoaren 24an iaz abiatutako emakumezkoendako Eibar Hiria Sariaren bigarren edizioa izango da jokoan (kadete, junior eta elite-sub23 mailetan), apirilaren 7an elite-sub 23 mailako 48. Valenciaga Memorialaren ordua izango da, maiatzaren 19an kadete mai-




lako Eibarko Txirrindulari Elkarteak Sari Nagusiaren hirugarren edizioa egingo dute eta ekainaren 6an jubenil mailako 84. San Juan Sari Nagusia jokatu da. Aurrekoez gain, X. Udaberri kontzertua egingo da otsailean, Bizikletaren Eguna irailaren 15ean eta, amaitzeko, XVII. Txistorra Eguna azaroaren 23an.



Eskubaloia Egun arrakastatsua kiroldegian

Aurreko zapatuan egun handia izan zen herriko eskubaloientzat. Jardunaldian gure herrian izandako talde guztien errekonozimendua egin zen eta lporua kiroldegian, talde horietako jokalariei asko bertan zirela, omenaldia egin zitzaion. Horrez gain, Somos Eibarrek garraipen garrantzitsua lortu zuen Zaragozako Dominicosen aurrean (33-31).

BARINAGAKO SAN ANTONETAKO



Hiru-txirlo bolarien hitzordua bihar Markinan

Aurten inoiz baino lehenago hasiko dira lehiak hirutxirlo bolariak, Markina-Xemeingo Barinaga auzoan lehenengo aldiz jokatu den San Anton txapelketarekin. Tiraldiak 16:30ean hasiko dira eta txapelketa bera ordubete geroago, hau da, 17:30ean. Sariak izango dira lehenengoko lau sailkatuentzat.

ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Eibar - Espanyol (etzidamu, 21:00)

Emakumezkoen 2. Maila

San Ignacio - Eibar (etzi, 12:00)

2. B Maila

Vitoria - Tudelano (etzi, 17:00)

Emakumeen Ohorezko Erregional Maila

Eibar - Lagun Onak (bihar, 18:00)

Ohorezko Erregional Maila

Oiartzun - Eibar (bihar, 15:30)

1. Erregionala

Urki - Eibartarrak (bihar, 18:00)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Antiguoko - Eibar (bihar, 17:30)

Euskal Liga

Eibar B - Balmaseda (etzi, 17:45)

KADETEAK

Euskal Liga

Kostkas - Eibar (bihar, 12:15)

FOBALL-ZALETUA

Los Paisanos - JMR Errefer. (bihar, 09:00)

Bar Txoko - Chic (bihar, 10:30)

Feredu - Bar Areto (bihar, 12:00)

La Jara - Larragest Sporting (etzi, 09:00)

Slow XOK - Durango (etzi, 10:30)

G. Garcia - Azkena Adahi (etzi, 12:00)

ESKUBALOIA

1. Nazional Maila

Somos Eibar - Romo (bihar, 19:00)

Emakumeen Gipuzkoako Txapelketa

Urbil-Usurbil - Eibar Eskubal. (bihar, 19:00)

Gipuzkoako 1. Maila

Salento Elgoibar - Haritza (etzi, 13:00)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

Avia Eibar - CRAT A Coruña (etzi, 12:00)

Emakumezkoen Euskal Liga

Getxo RT - Avia Eibar (etzi, 13:00)

Euskal Erregionala

Avia Eibar B - Zaisa Irun (bihar, 16:00)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - Fortuna (gaur, 21:45)

Emakumeen Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - Larraina (bihar, 20:35)

AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



FERNANDO SOLANA: "Urkizuko dorreak".



Eguazten arratsaldean zabaldu zuten "Pirinioetako Burdinaren Bideko Ondare Industrial" izenburuko erakusketa Eibarko Armagintzaren Museoa. Erakusketa ibiltari honek burdin eta siderurgiarekin erlazionatutako ondare industrialaren inguruko informazio ugari biltzen du, bisitariak erraz irakurri eta ulertzeko moduko hainbat paneletan. Erakusketan Andorrako Printzerria, Katalunia, Euskal Herria, Languedoc-Rosellon eta Akitaniako eskualdeetan industria horretako eremurik aipagarrienak bildu dituzte. Urtarrilaren 27ra arte egongo da ikusgai, Eibarko Armagintzaren Museoa, ohiko ordutegian.

Burdingintzaren bidean murgiltzeko moduko erakusketa

Eibarko Udala europar kultur ibilbide izendape-na duen Pirinioetako burdinaren ibilbidearen elkar-teko kide sortzaileetako bat da eta herririk herri dabilen erakusketa honekin elkarte horretako baliabideak ezagutaraztea nahi dute.

Pirinioetako Burdinaren Ibilbideak Pirinioetan burdinaren fabrikazioa eta bere industria-rekin lotutako ondarea ikertu, gorde eta erakusteko helburua du. Ibilbide amankomun baten inguruan, bata bestea-rengandik gertu dauden aipatutako bost eskualde horietako hainbat eremu hartzen ditu, jendeari ezagutzera emateko asmoz.

Izan ere, burdingintza Pirinioen alde bietako jarduera ekonomiko nagusietako bat izan da aspaldidanik eta, gaur egun ere hala da aipatutako inguru horietako askotan. Eta ia desagertzeraino, garrantzia galtzen joan den tokietan ere handia da siderurgia lagatuko arrastoa. Horregatik, eskualde horiek mugek eta bestelakoek

banatzen badituzte ere, burdingintzaren jarduerak eskualde horietan lagatuko ondareak moduren batean elkarren arteko lotura egotea eragiten du.

Historian atzera bidaia

Ondare horrek duen balioaren garrantzia ezagutzera emateko hainbat egitasmo bultzatu izan dituzte erakundeek. Baina, asmo horrekin bakoitzak bere aldetik egindako lanaz haratago, Okzitaniako, Andorrako, Kataluniako eta Euskal Herriko elkarte eta instituzioak elkarlanean aritu dira eta horrela sortu zen Pirinioetako Burdinaren Bidea. Mugakide diren bost eskualde Andorra, Katalunia, Arieja, Akitania eta Euskal Herria, burdinaren gaia ardatz hartuta, inplikaturako hainbat erakunderekin lotu zi-

**Eguaztenetik
zapatura, 16:00etatik
20:00etara,
eta domekan
10:00etatik 13:00etara
ikus daiteke**



Eibarko Udala Burdinaren Ibilbidearen elkarteko kide-sortzailea da.

ren, hala nola, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lenbur Fundazioa, Bizkaiko Zubia, Kataluniako Zientziaren eta Teknikaren Museoa, Bartzelonako Diputazioa Cercseko meategiekin, Arieja Departamentuko Kontseilu Nagusia, "Fer et Savoir Faire" Elkarte, Andorrako Comú de Ordino eta Andorrako Gobernua. Eta elkarte, berriz, 2018. urtean eratu zuten Andorra, Akitania eta Kataluniako hainbat kidek. Horiekin batera, Gipuzkoan elkarte horretako kide dira Gipuzkoa-

ko Foru Aldundia, Lenbur Fundazioa, Beasaingo Udala, Eibarko Udala, Mutiloako Udala, Ormaiztegiko Udala eta Zeraingo Udala.

Pirinioetako Burdinaren Bidean burdinarekin lotura duten burdinola, museo, meatzeak eta beste hainbat topa daitezke. Leku horiei guztiei aitorpena egiteko modu bat da ibilbidea, eta hura osatzen duten lekuek historian atzera egiteko eta egungo industria siderurgiakoaren zimenduak ezagutzeko aukera ematen dute.

Martin Azpilikueta ilustratzaileak komiki-ikastaroa eskainiko du Indianokua Gaztelekuan. DBHko nerabeei zuzendutako ikastaroa da eta otsaileko lau zapatuetan emango da arratsaldez. Ikastaroa doakoa izango da eta urtarrilaren 18tik 27ra bitartean eman ahal izango da izena. Argibide gehiago behar izanez gero, Gaztelekura jo edo 688 682 372 telefonora deitu daiteke.

MARTIN AZPILIKUETA (ilustratzailea):

“Marrazten ondo pasatzea eta gozatzea da beharrezkoa”

- Nolako ikastaroa izango da?

Lehenik, parte-hartzaileek pertsonaia bat sortu beharko dute eta, hortik abiatuta, istorioak sortzea da asmoa. Pertsonaiei izena jarri eta itxura eman-go diete eta, gero, animatzen, akzioa sortzen... erakutsiko diet. Irudi eta le-tren bitartez istorioak kontatzen ikasi-ko dute.

- Komiki bat egiteko orduan ondo marraztea beharrezkoa da?

Ez da beharrezkoa. Edozer gauza marraztuta, modu bikainean egin edo ez, istorio on bat kontatzen baduzu, nahikoa da. Ez da beharrezkoa ondo marraztea, marrazten ondo pasatzea eta gozatzea da beharrezkoa.

- Nolako prozesua jarraitu behar da komiki bat egiteko orduan?

Nik bi prozesu jarraitzen ditut. Bate-

tik, marraztu egiten dut, beste barik, eta ateratzen dena ateratzen zait. Kasu horietan ez daukat gidoirik eta inprobi-satu egiten dut. Beste batzuetan, ordea, gidoi bat prestatzen dut edo ideia bat garatzen dut marraztu aurretik. Gainera, komikia jantziko duten gaiak pentsatu eta zehazten ditut (lokalizazioa eta abar, adibidez). Kasu horietan bo-zetoak egiten ditut.

- Nola hasi zinen komikien munduan?

Betidanik marraztu izan dut, baina orain dela bost edo sei urte hasi nintzen komikiak egiten. Komikiak beti irakurri ditut eta Jon Martin Euskal Herriko Uni-berstitateko Arte Ederretako irakaslea-ren komikiak gustatzen zitzaizkidan, oso sinpleak eta oso onak direlako, eta kon-turatu nintzen ez zela beharrezkoa su-perheroien komikiak edo marrazki oso

elaboratuak egitea komiki bat sortzeko. Istorioak egiten hasi nintzen eta Kol zen tira horien protagonista. Nahiko istorio absurduak ziren, ez zuten ezer berezirik kontatzen, eguneroko bizitzan gertatzen diren gauzak, beste barik.

- Jon Martinez gain, badaukazu beste eredurik komikien munduan?

Robert Crumb eta Daniel Clowes as-ko gustatzen zaizkit; eta bestetik, Car-litos eta Snoopyren, Calvin eta Hobbe-seren eta Tintinen istorioak ere gusto-ko ditut.

- Komikiak edozein adin tarteko jendearentzat izan daitezke?

Bai, noski! Komiki batean edozein gai landu dezakezu. Pelikula batean egiten den bezala, komikietan ere denetarikoa gaiak landu daitezke, haurrei, nerabeei edo helduei zuzenduta.




Mario Coboren kontzertua etzi Portalea Musika Klubean

Konpositore, produktore, gitarrajole eta abeslari, Mario Cobo estatuko erreferentzizko musikoa da rock and roll munduan. The Nu Niles-eko li-derrak Kim Lenz, Janis Martin edo Billy Lee Riley moduko musikariekin ko-laboratu du. 1994an bere lehen kontzertua eskaini zuenetik Cobok ez dio laga abesteari eta konposatzeari, izan Nu Niles-ekin (milaka dira "El Crujir de tus Rodillas" abesten dutenak), edo izan Los Mambo Jambo instrumen-tuzko rhythm & blues basatiena musika-jaialdietara eramanez. Loquillor-ekin bi urteko jira egin ondoren, 2018ko hasieran Alfonso Alcala kontraba-xuarekin eta Marco Antonio Lopez bateriarekin estudioan sartu eta azken abestiak grabatu ditu, domekan 19:30etik aurrera Portalean eskainiko di-tuenak, hileroko Portalea Musika Klubaren barruko programaren barruan.



Eñaut Elorrieta & Kaabestri String Ensemble zuzenean gaur iluntzean

Musika proposamen berriarekin igoko da Coliseo antzokiko eszena-tokira gaur iluntzean Eñaut Elorrieta, 20:30ean hasiko den emanaldia eskaintzeko. Gaurkoan, Ken Zazpi-ko abeslariarekin batera, Kaabestri String Ensemble, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko bost musikarik osatutako hari boskoteak jardungo du, "sentsazio berriak bizitzera eramango gaituen" kontzertuan. "Harian" izeneko kontzertuan, beraz, bi biolin (Oscar Lopez eta Igor Torre), biola (Arkaitz Martinez), txeloa (Jon Larraz) eta kontrabaxua (Paloma Torrado) entzuteko aukera izango da, Eñaut Elorrietaren ahotsarekin batera. Sarrerak 12 euro balio du (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).




Tor Magoak ikuskizuna eskainiko du domekan ...eta kitto!-n

Haur Hezkuntzako umeak (2-5 urtekoak) dituzten familientzat, bereziki Gurasoak Berbetan mintzapraktika programako eta Ongietorri harriera eta elkarbizitzarako programako kideentzat magia saioa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak domekarako, 12:00etan elkartaren lokalean (Urkizu, 11 solairuarterean). Tor Mago ezagunak egingo duen ikuskizuna doanekoa izango da (sarrera librea izango da, toki guztiak bete arte).

Niceto Muguruzaren liburua interneten

Ego Ibarra batzordeak "Nociones generales de higiene del obrero siderúrgico", liburuaren lehen argitalpenaren mendeurrenaren harira iaz berriz argitara eman zuten Niceto Muguruza medikuaren liburua interneten eskuragarri ipini du, www.egoibarra.eus webgunean. Niceto Muguruza Larriña (1882-1920) Udal Laboratorioaren zuzendari izandakoak idatzi zuen jatorrizko liburuaren faksimilarekin batera, Lan Medikuntzaren Euskal Elkarteak iaz argitara eman zuten lanak medikuntzaren ikuspegitik egindako iruzkinak dauzka. Sevisistem 2000 SL argitaletxeak hartu zuen edizioaren ardura eta 500 liburu eman ziren argitara. Elkarren bidez eskura daiteke, 20 eurotan.



Masa italiar tailerrera lekuak beteta

Illunabarrian programaren barruan, masa italiarren inguruko tailerra egingo da eguaztenean, 19:00etan, ...eta kitto! Euskara Elkartearen. Tailerrean parte hartzeko eskaintzen ziren plaza guztiak beteta daudela eta, antolatzaileek izenematea itxi egin dute. Urtarrilaren 30erako bigarren tailerra antolatu da, baina hau ere bete egin da.

Korrikarako materiala salgai

Apirilaren 13an gure herria zeharkatuko duen Korrika 21erako materiala (arropa eta osagarriak) erosi nahi duenak AEK Euskaltegian izango du aukera, martxoaren 22ra arte. Astelehenetik barixakura joan daiteke, 11:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 19:00etara.



GLORIA AROSTEGI EGAÑA

(I. URTEURRENA: 2018-I-21)



*"Beste behin ere...
eskerrik asko, guapita"*

—ETXEKOAK—



Zapatuetako Tailerretarako izen-ematea astelehenean hasiko da

Astelehenean zabalduko dute Zapatuetako Tailerretan parte hartu nahi dutenentzat aurre-matrikula. Tailerrak 5 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzendutakoak dira eta interesa dutenek internet bidez bete beharko dute aurre-matrikula, www.astixa.eus helbidean (epea 28an amaituko da). Negu honetarako prestatu duten eskaintzaren barruan tailer hauek egingo dira: Goma-Eva kareta, kartoizko buruhandiak, jostailuak sortzen, sukaldaritza osasungarria eta maketak.

Tailerrak adinaren arabera sailkatu dituzte eta bakoitzak egitegi eta ordutegi berezia izango du: Goma-Eva kareta egiteko tailerra 5 urteko haurrentzat izango da, kartoizko buruhandiak egiteko tailerra, Lehen Hezkuntzako 1. mailakoentzat eta jostailuak sortzeko tailerra Lehen Hezkuntzako 2. mailakoentzat. Hirurak Portalean izango dira, otsailaren 9, 16 eta 23an eta hainbat ordutegi daude aukeran. Sukaldaritza osasungarriaren inguruko, berriz, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoentzat antolatu dute, otsailaren 2, 9, 16 eta 23an izango da eta bi talde egingo dira



Tailerrak adinaren arabera sailkatu dituzte, urtero moduan.

(16:30etik 18:00etara eta 18:00etatik 19:30era). Kasu honetan izen-ematea Pegoran egin beharko da. Eta maketa tailerra Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoentzat izango da, Jazinto Olabeiko ludotekan (otsailaren 9, 16 eta 23an) eta honetan ere bi talde eskaintzen dira (16:30etik 18:00etara eta 18:00etatik 19:30era).

Danborradaren kontzertua eskainiko dute domekan Coliseoan



Domekan, San Sebastian egunean, danborradako doinuak nagusituko dira Coliseo antzokian, **Usartza txistulari taldeak**, Molto Vivace metal boskotearekin eta Eibarko Danborradaren ordezkari taldearekin batera emango duen kontzertuan. Emanaldia 12:30ean hasiko da eta, aurreko urteetan egindakoaren bidetik, Eibarko Danborradako piezekin batera Donostia, Azpeitia eta beste herri batzuetako danborradetako piezek osatuko dute egunerako prestatu duten egitaraua.

Jose Miguel Laskurain Bielorrusiara joan da, hango orkestra zuzentzeko

Bielorrusiara bidaian joan zen atzo Jose Miguel Laskurain orkestra zuzendari eibartarra, hango irratitelebistako orkestra nazionala zuzentzeko. Aurreko domeka eguerdian Bergarako txistulari bandarekin emanaldia eskaini zuen Bergarako Udaleko osoko bilkuren aretoan eta, emanaldiaren amaieran esan zuenez, pozik dago Bielorrusian duen lagun baten bitartez sortu zaion aukera eta erronkarekin. Musikari profesionalak zuzenduko ditu Laskurainek han, Errusiako musika oinarri duen emanaldian.



Juan Antonio Palaciosen "Harria" erakusketa Zarautzen

Martitzenaz geroztik Juan Antonio Palacios eibartarraren "Harria" erakusketa Zarautzen, Photomuseum Argazki&Zinema Museoan ikus daiteke. Otsailaren 10era arte egongo da ikustera joateko aukera, martitzenetik domekara, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Sarrerak 6 euro balio du (murriztuak 3 euro) eta eguzten eta barixakuetan museoaren sarrera doakoa izango da. Horrekin batera, otsailaren 1ean, 18:00etan erakusketari buruzko hitzaldia eta aurkezpena egingo ditu Juan Antonio Palaciosok.





The Black Noteren musika beltza ERMUAN

The Black Note musika beltz huts-hutsa da, Madrilen egindakoa. Eta bihar 20:00etan Madrilgo taldeak kontzertua eskainiko du Ermuko Lobiano kultur etxean. Soul, rhythm&blues eta gospela, funk-a, reggae-a eta soul latindarraren bidetik egingo du. Pianoak eginkizun garrantzitsua du, bertatik abiatzen baitira konposizioak, egungo soul taldeen kasuan ez bezala. The Black Notek estilo berekoi eta berezkoa du, abeslari beltza barik zuria duena. Blanca de la Plazaren ahots boteretsuak eredu guztiak hausten ditu, eta Mónica Menendezen konposizio, piano eta abesbatzekin, egungo musika panoraman aurkitzen zaila den emakume-tandema eratzen dute.



San Sebastian jaiak DEBAKO Elorrixan

Gaur hasi eta domekara arte ekintzaz betetako hiru egun izango dituzte Debaiko auzo horretako biztanleek. Gaur gauean mus-txapelketa hasiko da 22:30ean. Bihar eguerdiko 12:00etan idi-probak izango dira, 14:30ean bazkaria egingo da karpan eta 17:30ean tortilla-patata lehiaketa egingo dute. Gauean afaria izango da, Urberun lzer eta Alabier trikitilariekin. Domekan, amaitzeko, goizeko 11:00etan meza ospatuko dute, ondoren herri-kirolak izango dira, aizkolari, harri-jasotzaile eta giza-probarekin. Jaiekin amaitzeko, 14:30ean bazkaria antolatu dute, bertsolariekin.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Jose Arriola Iriondo. 89 urte. 2019-I-11.
- Maritxu Gantxegi Juaristi. 97 urte. 2019-I-12.
- Camilo Alvarez Otero. 71 urte. 2019-I-12.
- Jose Luis Unzetabarrenetxea Oregi. 90 urte. 2019-I-13.
- Julio Txurruka Osoro. 87 urte. 2019-I-15.
- Conchi Lopez Alonso. 84 urte. 2019-I-15.
- Sabina Aranguren Beitia. 90 urte. 2019-I-16.

jaiotakoak

- Paule Etchecopar Arnaiz. 2019-I-9.
- Joshua Osamienwenfan Imanfidon. 2019-I-9.
- Fatima Afansiou. 2019-I-10.
- Elaia Barrios Camarzana. 2019-I-11.
- Moussa Yandri Ayosa. 2019-I-11.
- Markel Bermejo Sierra. 2019-I-12.
- Mariam Aghbalou. 2019-I-12.
- Razan Ed Dayaz Bouden. 2019-I-14.

farmaziak

- Barixakua 18
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Zapatua 19
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Domeka 20
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 21
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Martitzena 22
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Eguaztena 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Eguena 24
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 25
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI - 2019AN-
 Zulueta (San Agustin, 5)

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

5	2	7	1	4	9	6	3	8
6	4	8	3	2	7	9	5	1
3	9	1	8	5	6	7	2	4
2	8	6	4	9	3	1	7	5
9	1	3	2	7	5	4	8	6
7	5	4	6	8	1	2	9	3
4	6	5	7	3	2	8	1	9
8	7	9	5	1	4	3	6	2
1	3	2	9	6	8	5	4	7

8		6						
5		4	3	6		8		
		7					3	
7			2	9		6		
			6		5			
		3		1	7			9
	6					4		
		8		3	9	7		1
						5		3

telefono

jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (jokoa)..699 37 75 20

Barixakua 18**MUSIKA**

20:30. "Harian", Eñaut Elorrieta&Kaabestri String Ensemble-ren kontzertua. 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

**Zapatua 19****BIZIKIDETZA JARDUNALDIA**

10:30. Moja karmeldarren eskutik. Arratera ailegatzea eta harrera.

11:00. Hitzaldia.

12:30. Errosarioa.

13:00. Meza.

14:30. Bazkaria.

16:30. Zine-foruma.

19:00. Bezperak eta adorazioa.

20:30. Agurra. Arraten.

ASTELENA PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30. 3 euro (EMGI bonoarekin doan). Astelena frontoian.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

DOKUMENTALA

18:00. "I am jugger" emanaldia. Portalean.

UMEENDAKO ZINEA

18:00. "Los increíbles 2". Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

Domeka 20**MAGOA**

12:00. Tor Magoaren ikuskizuna, Haur Hezkuntzako umeak (2-5 urte) dituzten familientzat. Sarrera doan, toki guztiak bete arte. ...eta kitto! Euskara Elkartearen.

**MUSIKA**


12:30. Danborrada kontzertua, Usartza Txistulari Bandaren eta "Molto Vivace" metal boskotearen eskutik. Coliseoan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

MUSIKA

19:30. Mario Coboren kontzertua (Portalea Musika Kluba). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Portalean.

**Astelehena 21****IKASTEN**

10:00. Antzerkia. Portalean.

MANIFESTAZIOA

12:00. Jubilatu eta pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagatik abiatuta.

Martitzena 22**IKASTEN**

10:00. "Helene&Blanche Feillet XIX. mendeko emakume margolariak" hitzaldia, euskeraz, Mikel Alberdiren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

**IKASTEN**

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

GURASOAK MARTXAN

18:30. "Eskola-familia: hezkuntza premia bereziak" ikastaroa, eskola adinean dauden haurren gurasoentzat. Portalean.

Eguaztena 23**IKASTEN**

08:11. Plentzia-Gorliz-Ermua-Armintza ibilaldia. Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua, Estaziñotik.

TAILERRA

19:00. Masa italiarren tailerra, Illunabarrian programaren barruan, "Ortutik ahora" elkartearen eskutik (toki guztiak bete dira). ...eta kitto! Euskara Elkartearen.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 24**IKASTEN**

10:00. "Iruzur fiskalak" hitzaldia, Jose Ramon Mariñoren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

**KALEETAN KANTUZ**

17:00. Dantza taldearen entsegua (hastapena, beterranoen entsegua 18:00etan hasiko da).
19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HITZALDIA

19:00. "Basoen kudeaketarako proposamena, naturatik hurbil" zikloari lotutakoa, Kolore Guztieta Basoak elkartearen eskutik. Topalekuan.


Erakusketak**Urtarrilaren 27ra arte:**

- "PIRINIOETAKO BURDINAREN BIDEKO ONDARE INDUSTRIALA" IBILTARIA (Armagintzaren Museoa)
- "BASOEN KUDEAKETARAKO PROPOSAMENA, NATURATIK HURBIL" (Topaleku)

Otsailaren 3ra arte:

- "INTROSPEKTIVA" JESUS MARIA CORMANEN IRUDIAK (Portalea)


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, ALAIN!!, atzo 14 urte egin zenduaz-en-eta. Asko maite zaittugu, mutil haundi. Musu asko famelixaren partez.



Zorionak, MALEN, etxeko sorgintxuak 4 urte bete diitu-eta. Musu eta besarkada potolua famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANER, astelehenian 8 urte bete zenduaz-elako. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Liberen partez.



Zorionak, NADIA, gaur 10 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundixa aitxitxa-amama eta aitxa eta amaren partez.



Zorionak, INTZA, pitxin!! eguaztenian 4 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Manexen partez.




Zorionak, ANE, bixar 13 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Iraiaren partez.




Zorionak, etxeko morroskuok: Haritzek 19 urte, Koldok 10 eta Alaine 2. Hirukote galanta egitten dozuena, etxeko mutillak. Musu potolo bat guztiatzat.



Zorionak gure mutil haundixeri! IÑAKIK 8xan 5 urte egin zittuan eta LUKAK domekan 7 beteko diitu-eta. Patxo potoloooo! Batez be, Lucia, Ane eta Mikelen partez.



Zorionak, EIDEN, domekan 2 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, LIBE, 5. urtebetetziagaittik! Musu erraldoiak, printzesa, etxeko guztiaren partez.



Zorionak, AIUR, gaur 2 urte egitten dozuz-eta. Ondo pasa eguna! Aitxitxa-amamaren partez. Eta Izaro eta Ederren musutxuak.



Zorionak, JARA, urtarrillaren 16xan 11 urte egin zenduan-eta. Eta PABEN osaba, hillaren 17xan 37 bete zenduaz-elako. Famelixa guztiaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

19an: 19,45, 22:30

20an: 20:00

21ean: 20:30

"Como la vida misma"

Zuzendaria: Dan Fogelman

(2 ARETOAN)

19an: 19:30, 22:30

20an: 17:00, 20:00

21ean: 20:30

"Atardecer"

Zuzendaria: Laszlo Nemes

(ANTZOKIAN)

19an: 17:00^(1 Ar), 19,45, 22:30

20an: 17:00^(1 Aretoa), 20:00

21ean: 20:30

"Glass (Cristal)"

Zuzendaria: Night Shyamalan


(ANTZOKIAN)

19an: 17:00

20an: 17:00

"Asterix. El secreto"

Zuzendaria: Louis Clichy





Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Emakume batek pisua edo 2 logela hartuko lituzke alokairuan. Tel. 680-691739.
- 3 logelako pisua alokagai Eibarren. Igo-gailuarekin. Tel. 658-740334.
- Pisua behar dut alokairuan Eibarren. Tel. 632-695273.
- 3 logelako pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 639-611454.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Isasi, Ipurua edo Legarre inguruan. Erosteko aukerarekin. Tel. 646-369330.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta pintore/igeltsero jarduteko. Tel. 612-358595.
- Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-410561.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 693-960639.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Formakuntza eta esperientzia. Tel. 631-975260.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Ordu-tegi malgua. Formakuntza eta esperientzia. Tel. 606-906729.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-463096.
- Neska eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 607-312258.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 650-152866.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-793715.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Tel. 690-139485.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-737903.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 653-667975.

- Mutila eskaintzen da igeltsero jarduteko eta baserriko lanak egiteko. Tel. 644-849206.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 655-094780.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 631-795113.

- Neska eskaintzen da orduka lan egiteko: garbiketarako... Tel. 632-695273.

- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-230281.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Baita asteburuetan ere. Tel. 634-277037.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 689-798284.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientzia. Tel. 632-818388. Adele.

- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-330721. Flor.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-502177.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-191490.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-314781.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-215907.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 622-677230. Yose-lin.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 600-730447.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-240849.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 612-455923.

4.2. Langile bila

- Neska behar dugu 8 urteko umea arratsalde zaintzeko. Tel. 675-006515. Manoli.

- Kamarera/o euskalduna behar dugu taberna baterako. Tel. 634-277015.

- Pertsona behar da tabernan lan egiteko. Tel. 695-690784.

- Emakume euskalduna behar da arratsalde zaintzeko. Tel. 628-330634 eta 630-434238.

- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Astelehenetik zapatu arratsaldera. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a Anardi tabernara.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Selektibitateko klase partikularrak ematen dira. 3/4 lagunekin talde txikiak. Tel. 685-739709.

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.2. Eman

- Katakumeak oparitzen dira. Tel. 628-502347.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa	Arreta arazoak
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (BILBO)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Berba
logopedia.

AIDA CORTA ANTÓN

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. LOZUE)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

Okulistikak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikina

• Presbiziaren kirurgia.

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)




PODOLOGOA

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buldogea
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer



PSIKOTERAPIA ZENTRUA


HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk.EIBAR
Zuberoa, 4.....ZARAUZ
Tel. 943 831 618



Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 eta 686859023



Tf. 686 85 73 22
moreno_iciar@yahoo.es

Itziar Moreno
PSIKOLOGOA
KOLEG. ZKIA. 1947

**GIZENTASUNA
ANTSJETATEA
AUTOESTIMA
ARAZOAK**

☎ 943 12 02 00
URKIZU, 13 - 1. ORBEAKO
DORREETAN

centro médico eibar



Psikoterapia

RPS: 32/17

FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)
94 416 49 06

furizar1@yahoo.com



Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17



bista eder

clinica dental - horts klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar

www.bistaeder.es